

IGELDOKO **ORRI** INFORMATIBOA

**Hasi da
ikasturtea**



Kaixo herrikide!!!

Udazkenean sartuta, ikasturte berriari hasiera eman diogu denok. Jubilatua, ikastaroak, Gurasoak, Eskola... denak martxan jarri dira. Eta udazkenarekin,

Udazken Festa ere ospatuko dugu urteroz bezala. Urriaren 20, 21 eta 22an izango da. Bestalde, Igeldoko Tokiko Entitate Txikiaren sorrera azken txan-

pan sartua da eta urriaren 1ean Herri Batzarra egin zen. Batzarrean emandako azalpen eta datu guztiak bildu ditugu ale honetan. Adi datorrenari!

'Igeldoko historia eta istorioak' liburuaren aurkezpena Orion

Jabier Iraolak, Alex Aisak eta Iñaki Iturain oriotarrak Igeldori buruzko liburuaren aurkeztu zuten urriaren 4an Orioko Salatxo aretoan. Ordubete eta laurdeneko hitzaldian liburuaren nondik norakoak azaltzeaz gain, Orio eta oriotarrekin zerikusia zuten gaiak eta gertaerak nabarmendu zituzten.

Une hunkigarria

Hitzaldira etorritako entzuleek gogotik eskertu zuten Iraolak eta bere lantaldeak egindako lana. Unerik hunkigarriena Amaia Iribarren eskutik bizi izandu zen, hitzaldira etortzerik ezin izan zuen Ana Lertxundiren mezua jendaurrean irakurri baitzuen. «Hitz hauek liburuaren egile-

ei eta bertaratutako guztiei helarazi nahi dizkizuet, nik gaur ezin dudalako bertan egon. Ana Lertxundi naiz eta hitz hauek helarazi nahiko nituzke Muniota Zahar baserrian jaiotako Jose Manuel Lertxundiren alaba naizen aldetik. Liburuaren irakurtzen ari naiz, poliki-poliki gozatu eta aitaren garai bateko bizipenak birgogoratzen eta ni berarekin ikasten. Jakingo bazenute zein unexoxoak diren biontzat... Guzti honengatik eskerrak eman nahi dizkizuet aitarekin bizi ditudan unepolit hauek zuei esker baitira. Igeldo inguruan dauden makina bat baserrien aitortza da, eta tartean, gure aitarena, Muniota Zahar. Hitz hauek aitaren eta gure familia-

ren sorkuntza omentzeko dira eta horri esker liburu honetan ageri da. Nire aita bezalako gainontzeko baserriarentzat txalo zaparrada eskatu nahi dut, isilean egindako lan guztia eta gure familia aurrera ateratzeko jarri den maitasuna aitortzeko. Horren fruitua naiz ni. Garrantzitsua da gure baserria argitalpen honetan islatzea, beste baserri guztiak bezala, noski. Txalo zaparrada eskatzen dut nire aitaarentzat eta bere belaunaldikoentzat, haiei esker hemen gaude eta. Eskerrik asko hitz hauek adierazten uzteagatik, ezin izan baitut ekitaldian egon. Mila esker eta zorionak egindako lanarengatik. Bejondeizuela!!».

Irakaspen ederrak eman zituen 'Nimonak'

Irailaren 9an zinea plazan eskaini zen ume eta gazte txoei begira. "Nimona" pelikula izan zen ikusgai eta gustoko pelikula izan zen bertaratutako ume zein helduentzako. Irakaspen onak ere eman zituen pelikulan zehar azaltzen ziren gaiekin: besteen onarpenaren beharra, desberdinari/ezezagunari zaion beldurra, estereotipoak hautsi beharra, genero berdinekoen arteko maitasuna... Akzioa eta umorea ere nagusi.



Greba Feminista orokorra!

Aurtengo martxoaren 8an Euskal Herriko mugimendu feministak udazkenarako greba feminista antolatuko asmoa adierazi zuen. Handik hilabete batzuetara jakin genuen data Azaroaren 30a izango zela. Grebaren helburua zaintza sistema publiko eta komunitario baten alde kalera ateratzea da.

Azken asteetan deialdia jendarte osoari zabaltzea erabaki da, guztion ardura delako zaintza eskubide kolektiboa borrokatzea eta azken batean, zaintza sistema aldatzea dena aldatzea delako.

Beraz Igeldon ere herritar guztiei zuzendutako deialdi orokorra egin nahi dugu eta greba eguna antolatzen hasteko gonbidapena luzatu. Horretarako data bat zehaztu dugu: Urriak 27, ostirala 18:00tan Kultur Etxean. Animatu eta azaldu!

Igeldoko Emakumeak

Agurra eta eskerrak Iraiari

Iraia Altunak urriaren 2an utzi zuen IKOko lanpostua eta Kooperatibatik eskerrak eman nahi dizkiote egindako lanagatik: «Mila esker Iraiari hilabete zail hauetan egin duen lan gogorragatik. Oso oso gustora egon gara!».

Bestalde, jakinarazi dute Ekhi Aizpurua izango dela bere ordeztariko den langile berria.

Batzarra laster

Datozen asteetan urteko batzarra egingo dutela ere aurreratu dute. Eguna zehazten dutenean zabalduko diete deialdia bazkideei ohiko bideetatik.

14 ikastaro eta ehundik gora ikasle

Ikasturte honetan 14 ikastaro antolatu dira eta horietatik bat berria da: euskara ikastaroa (oinarrizko maila). Denera, 109 ikasle eman dute izena, haur eta helduak kontuan hartuta. Hiru ikastaro, berriz, ez dira aurrera atera: xakea, korrika eta marrazketa.

Aurtengo ikastaroak hauek dira: ingelesa, pianoa, trikitixa, jostintza, gitarra, euskal dantza, yoga, break dance, musika tailerra, panderoa, frantsesa, balleta eta euskara mintzapraktika.

Bi irakasle berri ere badira aurten: Marta ariko da ingelesa ematen Steven ordeztariko, eta Mikelek emango die euskal dantza handiei Aioraren partez.

Apuntatzeko aukera, lekua baldin badago

Ikasturtea martxan baldin badago ere, lekua dagoen ikastarotan izena emateko aukera dago oraindik. Beraz, interesa izanez gero, harremanetan jartzeko adierazi dute antolatzaileek: 943313030 / 606311734 edo ieltxokulturrelkartea@gmail.com.



Badator Gau Beltza

Azken urteetan egin bezala, urriaren 31 honetan ere Gau Beltza antolatuko dute Guraso Elkartetik. Oraindik ez dute zehaztuta ze ekintza izango diren, baina aurrerago zabalduko dute ohiko bideetatik.

Bestalde, adierazi dute ikasturtea martxan dagoela eta aurten 5 ume hasi dira Eskolan, 2 urtekoak. Eskola Kirola ere atera da eta 2. eta 3. Zikloko ume gehienak apuntatu dira.

Zuzendaritza berritzea, abenduan

Guraso Elkartetik gogorarazi dute abenduan zuzendaritza berritzea tokatzen dela; hiru kide berrik osatuko dute. Gurasoei dei egiten diete animatzeko.

Longa baserriak bosna sari lortu ditu Azkoitian eta Salamancan

Blonda arrazako kategoriko behiak dauzkate Longa baserrian. Halaxe erakutsi dute Azkoitian eta Salamancan jokatu diren txapelketetan.

Abuztuaren 17an Gipuzkoako Txapelketa izan zen Azkoitian eta 5 sari eskuratu zituzten: 3 sari lehenengo postukoak eta 2 hirugarren postukoak. 11 bururekin hartu zuten parte (9 konkursora eta 2 txekor amarekin).

Irailaren 1etik 5era, berriz, Salamancako Feria izan zen eta bertan beste 5 sari lortu zituzten: lehenengo postuko 1, bigarren postuko 2 eta hirugarren postuko beste 2. Kasu honetan 16 bururekin hartu zuten parte (13 konkursorako eta 3 txekor amarekin).



Euskadiko Txapelketa Markinan

Urriaren 14an Markinara joatekoak

ziren Euskadiko Txapelketa jokatzerara. Ea ba handik ere emaitza onekin itzultzen diren!

Tailerra, ibilaldia eta irteera, ikasturtea hasteko

Igeldoko Jubilatuek jarri dute ikasturte berria martxan. Ikasturte hasiera honetan, erorketak saihesteko tailerra egin dute Osakidetza teknikeri baten eskutik. Urriaren 4 eta 11n izan ziren saioak.

Horrez gain, Igeldoko inguruak ezagutzeko hilleroko ibilaldiek ere hasi dira eta urriaren 4an egin zuten lehenengo ibilaldia Kuku-



harrira.

Urriaren 18rako beste plan bat ere badute: Lodosa aldera eskursioa antolatu dute. Gero konserbera ikustera joango dira han.

Bestalde, pilates eta memoria lantzeko ikastaroekin ere hasi dira.

Beste hainbat ekintza

Mobilaren erabileraren inguruan ikastaro pare bat egingo dituzte

urtea bukatu aurretik.

Igeldoko Obserbatoriora bisita batzuk ere antolatuko dituzte eguraldia eta bere tramankuluak bertatik ezagutzeko.

Bestalde, adineko gaixotasunen zainketari buruz hitzaldia ere antolatzeko asmotan dira. Azaroaren bigarren hamabostaldian egitea pentsatzen dute. Jakinaraziko dute guztia aurrerago.

Udaran hainbat sari lortuta, pozik daude Ondazarten

Ondazarte baserrikoek uda oparoa izan dute. Uztailaren hasieran Araitz Otamendi behien prestatzaile eskola batera joan zen Asturiasko Colunga herrira. Bertan aste betez ikasten aritu ostean, azken eguneko lehiaketan, bere kategorian bigarren postuan geratu zen. Abuztuan berriro joan ziren Asturias aldera, LLanera herriko frisoi arrazako txapelketan parte hartzera etxeko bi behi hartuta. Matti izeneko behiak hirugarren postua lortu zuen bere adineko atalean. Harribeltz behia izan zen poz handienak ekarri zizkiena, izan ere, lehen umezko behi honek bere atalean lehen postua eta erraperik onenaren saria lortzeaz gain, behi gazteen finaleko txapeldun geratu zen.

Estatu mailako txapelketan ere fin

Irailaren 20tik 24ra berriro ere Asturiasera abiatu ziren Ondazartekoak, oraingoan Willis izeneko biga bat eta Harribeltz behia hartuta. Estatu mailako frisoi arrazako txapelketan parte hartu zuten Gijonen eta handik ere ekarri zituzten sariak. Willis bigarak bosgarren postua eta banderatxoa lortu zituen



Behi onak izateaz gain, manejatzaile ona ere badute Ondazarten. Hirugarren geratu zen Araitz.

6 eta 8 hilabete arteko atalean. Atal horretan 22 animaliak parte hartu zuten eta lehiaketa horretan dagoen maila ikusita oso postu ona dela adierazi dute Ondazartekoek, benetan pozik daudela lortutako emaitzarekin. Harribeltz behiak ez zuen LLaneran adinako arrakastarik lortu, bere atalean hamargarren egin zuen. Gijongo lehiaketan, azken egunean, behien manejatzaile onenaren txapelketa ere egiten dute. Amaiur eta Araitzek hartu zuten parte bakoitzak bere atalean eta

Araitzek hirugarren postua lortu zuen. Behi on bat izateak asko balio du, baina behi hori manejatuko duen manejatzaile on bat ere badute Ondazarten.

Lan guztiaren emaitza

Ondazarte baserrikoak oso pozik daudela nabarmendu dute egin duten lan guztiak bere emaitza izan duelako uda honetan: «izan ere lehiaketa hauetara aurkezteko atzetik dagoen lana handia eta neketsua da, baina merezi izan du».

Animatu eta bozkatu Igeldoko proposamenak!

Beste behin ere, Partaidetzazko Aurrekontuak egitasmoa jarri du martxan Donostiako Udalak. Martxoan zehar proposamenak egiteko aukera izan zen (Igeldotik hainbat egin ziren) eta orain proposamen horiek aztertu eta aurrera zeintzuk egiten duten erabakiko

du Udalak. Ondoren, botoa emateko fasea irekiko da. Urriaren 16tik 29ra izango dute herritarrek botoa emateko aukera.

Orri Informatibo hau bukatzerakoan, oraindik argitaratu gabe zeukan Udalak ze proposamen pasa diren bozketa fasera. Dena dela,

proposamen bat baino gehiago aurkeztu zuen Herri Kontseiluak martxoan eta horietatik batzuk aurrera egingo zutela espero dute.

Hori horrela, animatu, parte hartu eta Igeldoko proposamenak bozkatzeko dei egiten diete herritarrei: donostia.eus.



Urriaren 1ean egin zen Herri Batzarrera 65 herritar gerturatu ziren.

«Egoera hobetzeko tresna baliagarria izango da»

Adostu da Igeldoko Tokiko Entitate Txikia sortzeko proposamena. Txostena prest dago eta adostutakoa aurkeztu zuten Herri Batzarrean urriaren 1ean. Igeldok izango dituen eskumen, aurrekontu, langile eta gainerakoaz aritu ziren.

«Adostu duguna onartzen bada, oso tresna baliagarria izango dela ikusten dugu; egoera hobetzeko oso eraginkorra izango dena», halaxe bukatu zuten TET Batzordeko kideek Igeldoko Tokiko Entitate Txikiaren inguruan emandako azalpena. Urriaren 1ean egin zen Herri Batzarra adostutako proposamena aurkeztu eta herritarren iritzia biltzeko. Igeldok izango dituen eskumen, aurrekontu, langile eta gainerakoaz aritu ziren. Aktibatu eta inplikatzeko garaia iritsi dela ere azpimarratu zuten, oso epe motzean Igeldo Tokiko Entitate Txikia izango delako. «Lan egin beharko da, baina baliabideak izango ditugu eta gauza asko lortzeko aukera izango dugu». 65 herritar gerturatu ziren batzarrera eta azalpenak entzunda, euren oniritzia adierazi zuten.

Eskumenak bi fasetan

TET Batzordeko kideek gogorarazi zuten urtarrilean, Udalak Siadecoren ibilbidea bukatutzat eman eta

proposamen berri bat aurkeztu zela: eskumenak bi fasetan eskuratzea. Alde batetik, A blokeko eskumenak egongo lirateke (TET sortu eta berehala gure eskutan), eta bestetik, B blokeko eskumenak (TET sortuta, azterketak egin ondoren, transferitzeko aukera).

Udalak horrela planteatu zien zailtasunak ikusten zituelako eskumen batzuekin. Zehaztapenak luze joko zuela eta komeni zela TET lehenbailehen sortzea adierazi zien.

Batzordeko kideek ez zuten gaizki ikusi pixkanaka martxan hastea, baina B blokean geratzen ziren eskumenekin kezka adierazi zuten. Behin eta berriz herritik eskatu diren eskumenak izanik (hirigintza, etxebizitza...) saiatu dira, nahiz eta geroko utzi, konpromiso bat "lotzen". Hori horrela, eskumen horiek osotasunean aztertuko dira eta baldintza batzuk bakarrik izango dira muga.

IGELDOKO TETaren AURREKONTUA	
ESKUMENAK	AURREKONTUA
BIDE PUBLIKOAK	140.493
PARKEAK ETA LORATEGIAK	30.738
BIDE GARBIKETA	92.830
ARGITERIA PUBLIKOA	159.560
HEZKUNTZA ARLOA	101.155
BESTE ERAIKIN PUBLIKOAK	65.557
ADINEKOEN SUSTAPENA	20.900
KULTUR JARDUERAK ETA JAIK	84.870
EUSKARA SUSTATZEA	12.320
KIROL JARDUERAK ETA EKIPAMENDUAK	33.898,98
PARTAIDETZA, BERDINTASUNA, GAZTERIA, AISIA...	8.579
*Inbertsioetarako	313.902
LANGILEAK	190.257,12
DENERA	1.255.060 €

ESKUMENAK

A blokea (TET sortu eta berehala gure esku):

- Bide publikoak
- Parkeak eta lorategiak
- Kale garbiketa
- Argiteria publikoa
- Hezkuntza arloa
- Eraikin publikoak
- Adinekoen sustapena
- Kultur jarduerak eta jaiak
- Euskara sustatzea
- Kirol jarduerak eta ekipamenduak
- Parte-hartzea, berdintasuna, gazteria, aisia eta hezkuntza ez arautua
- Administrazio orokorra

B blokea (azterketak egin ondoren transferitzeko aukera):

- Hirigintza
- Etxebizitza
- Ingurumen zerbitzuak
- Turismoa eta garapen ekonomikoa
- Hondakinak bildu eta tratatzeko kudeaketa
- Ur hornidura eta saneamendua
- Hilerrri zerbitzua

Lau langile

Igeldoko TETak izango dituen langileen berri ere eman zuten. Hasiera batean, lau langile izango dira: Administrazio Orokorreko Teknikaria (%100) -honek egin ditzake idazkaritza eta kontuhartzailatza funtzioak Donostiako idazkariak hala erabakitzen badu-; Hirigintza eta mantenimendu teknikaria (%100); Garapen eta zaintza soziokomunitarioko teknikaria (%50); eta administraria (%70). Gerora, egokiagoa ikusten bada, aldaketak egon daitezke, baita zerbitzuak kontratatuzetik tira beharrean, brigadako langileak jartzeari ere.

Aurrekontua: 1.255.060€

Lehenengo fase honetan izango ditugun eskumenak kontuan hartuta, TETari dagokion aurrekontua 1.255.060 eurokoa izango da gutxi gorabehera. Hori izango da Donostiako Udaleko aurrekontutik TETera bideratuko dena. Kalkulu hori egiteko, formula bat zehaztu da eta urtero horren arabera egingo da kalkuluak. Etorkizunean, eskumenen bat gehituko balitz, dagokion aurrekontua ere bai.

Aurrekontu honetatik aparte, hasierako inbertsio batzuk ere egingo ditu Donostiako Udalak Igeldon. Horiek izango dira: Eskola Zaharra konpontzea; plazako komunak eta aldagelak egokitzea; frontoian ura ez sartzeko lanak egitea; eta Eskola Zaharra egin bitartean, TETeko bulegoak jartzeko lokal bat egokitzeko diru laguntza (40.000€).

KONPARAKETA BESTE UDALERRI BATZUEKIN:**Berastegi:** 1.255.245 €**Ormaiztegi:** 1.588.000 €**Elgeta:** 1.835.977 €

- Igeldorekin ezaugarri antzekoenak dituena Berastegi. Landa ingurua; Industria gunerik gabe.
- Beste biak, Ormaiztegi eta Elgeta, landa gunek, baina Industria gune garrantzitsuekin.
- Industria gunea duten udalerriek diru sarrera handiagoak dituzte, baita gastu handiagoak ere (zabor bilketa, argiteria...)
- Igeldok izango lukeen aurrekontu berdintsuarekin Berastegiko udalak zerbitzu gehiago eskaini behar ditu.
- Ormaiztegin ekonomikoki baloratuta dauden B blokeko eskumenak bakarrik gehituta antzeko aurrekontua izatera iritsiko ginateke.
- Elgetako aurrekontua handiagoa da Eguneko Zentroa dela eta, Aldunditik diru gehiago jasotzen duelako, mailegua jaso duelako eta diru-laguntzak tarteko.

AURREKONTU HONEK ESKAINI BEHAR DIREN ZERBITZUAK ZIURTATZEN DITU?

- Herri txikitan beste antolaketa bat; lan asko langile propioen bitartez. Igeldoko TETaren aurrekontuaren diseinua Donostiako Udalaren zerbitzu antolaketaren arabera eginda dago, lan guztiak udal kanpoko enpresen bitartez. Honek konparaketa zaildu egiten du.
- Elgetako aurrekontua oinarri hartuta, zerbitzuen azterketa zehatzagoa egin dugu.
 - Alde batetik, Brigada edukitzearen kostua + hauen lanei lotutako zerbitzuen kostua (Kale garbiketa, bideen mantenua, argiteriaren mantenua, parkeen eta berdeguneen mantenua...) $246.000+18.000+32.000= 296.000$ €
 - Bestetik, Igeldoko TETak zerbitzu berak eskaintzeko duen aurrekontua $57.280+ 92.830+140.493+30.730= 321.000$ €
- Ematen du zerbitzu hauek sortzen duten gastu arruntari aurre egiteko ahalmena izango dugula. Gainera azpimarragarria da inbertsioetarako izango dugun aurrekontua. Kontuan hartu gabe beste diru iturri batzuk (diru laguntzak, maileguak...) antzeko udalerrien inbertsioetako aurrekontuen mediatik dezente gorago dago.

FORMULA INBERTSIOETARAKO

$$IIA = IA \times \text{Bizt. \%} \times \text{LZE}$$

Horrek esan nahi du Udalak inbertsioetarako daukan aurrekontuaren %1 izango duela TETak bere inbertsioetarako. Udalaren inbertsioetarako aurrekontua normalean 30 eta 35 milioi euro artekoa da; beraz, Igeldoren inbertsio aurrekontua 300.000 eta 350.000 eurokoa izango litzateke.

Formula hori ez da aplikatuko Udalak ezohiko inbertsioak egiten dituenetan eta zorpe-tzea eskatzen duten inbertsioak egiten dituenetan.

HASIERAKO INBERTSIOAK

Donostiako Udalak hartuko ditu bere gain:

- Eskola Zaharra egokitzeko obrak (2024-2025-2026).
- Igeldoko plazako komunak eta aldagelak egokitu (2024)
- Frontoiaren alde bat estali urik sar ez dadin (2023-2024)
- Eskola Zaharra egin bitartean, TETeko bulegoa beste nonbait jarri beharko da eta lokal hori egokitzeko 40.000 euro emango du Udalak (2023).



Eskola Zaharra berritzeko lanak Udalak bere gain hartuko ditu. 2024, 2025 eta 2026 urteetan zehar egingo dira lan horiek.

Hurrengo pausoak

Orri Informatibo hau idazterakoan, Donostiako Gobernu Batzordetik pasatzeko asmoa zegoen txostena (urriak 10). Bertan onarpena jasota, erakusketa publikoan jarri eta alegazioak egiteko epea zabaltzea aurreikusten zen (hilabeteko epea). Erakusketa publikoan dagoen bitartean, Igeldon aurkezpen eta partehartze saio bat egiteko asmoa du Udalak. Ondoren, erakusketa publikoaren epea bukatzean, txosten definitiboa prestatuko da eta Plenotik pasako da. Plenoak onarpena ematean, Igeldon galdeketa egingo da eta ondoren Foru Aldundiak erabakia hartuko du.

Galdeketa lotuta, emaitza loteslea ez izan arren, parte hartzeko deia egin zuten batzarrean. Ahalik eta babes handiena lortzea garrantzitsua dela adierazi zuten.

Eratu eta gero zer?

Foru Aldundiak Igeldoko TET eratzea erabakitzen badu, berehala martxan jarriko litzateke. Berez, TETaren ordezkariak Udal Hauteskundeetan aukeratu da, baina 2027ra arte hauteskunderik izango

ez denez, bitarte honetan Gestora bat osatuko litzateke. Gestora hori 5 kidek osatuko lukete eta Foru Aldundiak izendatuko luke azken Udal Hauteskundeetan izandako emaitzen arabera. Hau da, Donostiako Udalerako aurkeztu diren alderdiek Igeldon lortu dituzten emaitzen arabera (4 EH Bildu eta 1 EAJ-PNV). Dena dela, herrian osatutako taldea izendatzeko eskaera egingo da (Ereñotzun eta Itziarren hala egin izan dute).

Funtzionamenduari dagokionez, Batzorde mixtoa jarriko da martxan berehala (udal ordezkariak eta TET ordezkariak osatuta). Bertan eskumenak/arloak/gaiak aztertu, eztabaidatu eta erabakiak adostuko dituzte. Negoziatzen jarraituko da.

Bestalde, 2027ko Udal Hauteskundeetan, TETeko ordezkariak aukeratu dira. Alkatea zuzenean aukeratu dute igeldotarrak eta gainerako 4 batzordekideak udal hauteskundeetako emaitzen arabera izendatu dira. Dena dela, kasu honetan ere, herritik aurkeztu den taldea onartzeko eskaera egingo da.

Esandakoak esanda, datorrenari ilusioz heldu eta inplikatzeko garaia iritsi zaigu. Denon artean eraiki beharko dugu sortuko den Entitate Txikia.



Gogotsu ekin diote Eskolan ikasturte berriari

Ikasturte berriari hasiera eman diote Igeldoko eskolan. Irailaren 7an hasi ziren ikasleak eta orduetik topera dabilta! Irailaren 15ean taldeen aurkezpena egin zuten aretoan, eta eskola koloretsua izango dutela argi utzi zuten: Elefanteak, Ortzadarra, Izarrak, Loroak, Detektibeak eta Emoji lagunak izango dira.

Ikasturte honetan, 2 urteko 5 ikasle hasi dira eskolan. Bestalde, bi irakasle berri ere badaude: Juanma eta Joxerra. Hiruhileko honetan, "Nor bizi da hemen?" Natur Zientziak landuko dituzte, izaki bizidun eta izaki bizigabeak.

Ikasturte honetan ere asko ikasi, eta batez ere, ongi pasako dutela ziur daude!

Piraten etxera gaua pasatzera 2023ko irailaren 21ean LH-ko ikasleak Piraten etxera joan ziren. Han bizitakoaren berri eman digute: «Goizeko 09:30etan autobusa hartu genuen, kriston euria egiten zuen. Iritsi ginenean aurkeztu egin genuen geure burua baita monito-



reek beraiena ere. Hamaiketakoak jan eta gero, arauak bideo batean erakutsi zizkiguten. Ondoren, maletak geletara eramane eta oheak prestatu genituen. Denbora librea izan genuen eta bazkaldu egin genuen.

Atertzean Pasaira jaitsi ginen. Barku batean ibili ginen, puntu batzuk irabazten altxorraren mapa lortzeko, baina 3 puntu falta zitzaizkigun. Bidean 3 puntuak lortzeko aukera eduki genuen.


Afaldu ondoren, musika kaxa

izeneko jolas batera jolastu ginen eta disko festa egin genuen. Ondoren, ohera joan ginen. Bikain pasa genuen.

Esnatu eta gero, maletak prestatu genituen. Gosaldu ondoren, altxorraren bila egin genuen, altxorra aurkitu (txokolatzeko txanponak ziren eta piraten zapi bat), bazkaldu eta etxera joan ginen.

Hau izan da Piraten etxean pasa genuen esperientzia ederra.

ESKERRIK ASKO PIRATAK!!!».




S	S	H	U	E	S	A	Y	I	L	H	P	S
A	O	A	O	A	A	B	E	H	I	A	L	A
T	I	D	I	I	I	S	S	E	S	U	E	
I	H	O	I	H	H	I	E	H	S	A	A	L
O	A	H	U	T	E	A	O	R	Z	A	E	E
A	L	A	I	D	T	S	R	S	Z	A	O	H
S	A	I	O	O	S	A	T	T	A	N	I	O
E	R	N	A	P	A	L	I	U	Z	R	G	I
O	A	O	T	N	O	A	E	A	H	U	I	A
A	H	O	A	L	H	R	A	I	E	O	N	E
A	N	H	L	U	H	A	A	A	H	E	O	A
T	I	A	Z	O	A	S	O	O	U	O	O	O
O	T	L	E	H	I	A	K	E	T	A	A	H

SAIHETSA
LEHIAKETA
OIHALA
OIHARTZUNA

AHOA
LEIHOA
LEHOIA
OIHANA

SAIHESTU
BEHIALA
ZUHAITZA
DOHAIN

5	3			7			
6			1	9	5		
	9	8					6
8				6			3
4			8		3		1
7				2			6
	6					2	8
			4	1	9		5
				8			7
							9




Find:



Magia eta gaztainak, Udazken Festa honetan

Urriak 20, 21 eta 22
egunetan ospatuko da
Udazken Festa.

Udazken Festa iristear da. Hain zuzen, urriaren 20, 21 eta 22an ospatuko da. Ohi bezala, igandea izago da egun nagusia eta azoka, bazkaria eta taloak ez dira faltako. Dena dela, aurreko egunetan ere izango da zerekin gozatu. Ostiralean, Hodei Magoaren Tutti-Magia ikuskizuna eskainiko da frontoian. Larunbatean, berriz, "Igeldo udazkenean" ibilaldia izango da haur eta helduentzat eta ondoren gaiztain-jatea egingo da plazan. Igandean, azokako momentuan, Oliba Jaitsiera ere egingo da (San Pedrotan bertan behera geratu zen eguraldiagatik).



URRIAK 20 OSTIRALA

19:00 "Tutti magia" ikuskizuna haur eta helduentzako Hodei Magoaren eskutik. Frontoian.

URRIAK 21 LARUNBATA

16:30 "Igeldo udazkenean" ibilaldia haur eta helduentzako. Plazatik abiatuta.
19:00 Gaztain-jatea plazan, musikak girotuta. (Barra irekita)

URRIAK 22 IGANDEA

10:00-13:30 Azoka. (Barra irekita).
11:30 Oliba Jaitsiera.
14:00 Bazkaria. Bertan herriko jubilatutak omenduko dira.
*Bazkarirako txartelak salgai Txapelan eta IKOn urriak 17 arte.
18:00 Taloak. (Barra irekita)

OHARRA

Iritzi-artikuluak argitaratzeko ezinbestekoak dira: egilearen izen-abizenak, kontaktu-bide bat, testua euskarazkoa eta inolako asmo iraingarririk gabekoa izatea. Bestalde, Orri Informatiboak ez ditu bere gain hartzen atal honetan esaten direnak.

Inork iritzi-artikulu bat bidaltzeko interesik balu, hurrengo aleak abenduan eta martxoan izango dira (igeldokoorria@gmail.com).



Itsas Aurre Kultur Etxea
Igeldoko plaza 4, 20008 Igeldo
Tfona. 943 313 030
Emaila: igeldokoorria@gmail.com

